

Izan litekeen itxaropena

Txostena jendaurrean aurkeztea

2010 urtetik hona, Hegoa Institutuak, Euskal Fondoaren laguntzarekin, Mendebaldeko Saharan izan diren giza eskubideen urraketei buruzko azterketa sakona egin du Carlos Martín Beristain zuzendaritzapean. Lehen emaitza gisa, joan den abenduaren 10ean, "El Oasis de la Memoria" izeneko txostena argitaratu zen azterketa horren ondorioekin. 2013 urtean, AFAPREDESAK hala eskatuta, Hegoa Institutuak, Aranzadi Fundazioak eta EHU/UPVk osatutako talde bat Saharara joan zen giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa bat egitera. Ondorioek, gertakarien egiatasuna frogatzeaz gain, sostengua ematen diete biktimei; baita onarpena, justizia eta ordaina aitortzeko egin diren eskaerei ere.

Eguna eta ordua: Irailaren 11, 19:00.

Tokia: Donostiako Udaleko Osoko Bilkuren Aretoa.

Ekitaldiko aurkezlea:

Jon Albizu, Lankidetzeta, Gizarte Ongizate eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkaria, Donostiako Udala.

Parte-hartzaileak:

Carlos Martín Beristain, ikerketako zuzendaria (Hegoa).

Francisco Etxeberria Gabilondo, ikerketako zuzendaria (Aranzadi).

Djimi Elghalia, Sartaldeko Saharako giza eskubideen aldeko ekintzailea.

Moderatzailea: Itziar Iturri, Euskal Fondoako Sahara Koordinazio Unitateko arduraduna.

"Egiaren hazia" dokumentala proiektatuko da. Ondoren, "Izan litekeen itxaropena" argitalpenaren aleak banatuko zaizkie bertaratzten diren lagunei.



Antolatzaileak:



Finantzatzaileak:

